



# **Ikastaroa: Nola handitu laneko eraginkortasuna Europako funtsekin. Kontratuen kudeaketa.**

**Europar Batasuna lan-lerro garrantzitsua da lankidetzaren arloko Espainiako erakundeentzat eta asko aurkezten dira finantzaketa-deialdietara. Finantzaketa emandakoan, garrantzitsua da onartutako proiektua arautuko duten kontratu-esparruaren eta betebeharren ezaugarri espezifikoak sakonki ezagutzea.**

Espainiako Garapenerako GKEen Koordinakundeak kontratuak kudeatzeko honako ikastaro hau antolatu du, "la Caixa" Gizarte Ekintzaren babesarekin. EBk finantzaturako garapenerako lankidetzaprogrametan zuzenean nahasitako eta/edo interesaturako teknikarien ahalmena hobetzea da haren xedea.

Prestakuntzak alderdi hauei erreparatuko die bereziki: **finantza-araudia eta hautagarritasuna; erantzukizunak; EBko komunikazioa eta ikuspena; aldaketak eta zuzenketak; eskuratzeko txosten eta ordainketen aurkezpena; auditoria, itxiera eta justifikazioa.**

**Maila ertain-aurreratuko ikastaroa.** EBrekin diru-laguntzak izapidetzen jakitea eskatzen da. Finantzatalearen eta bere kontratu-eskakizunen ezaugarriak kontuan hartuta, dokumentu asko ingelesez (gehienak) edo frantsesez izaten dira. Ikastaroan emango diren batzuk gaztelaniaz egon daitezke, baina baliteke Europar Batzordetik zuzenean datozen beste batzuk aipaturiko bi hizkuntza horietako batean soilik egotea.

## **Helburuak**

- EBrekin egiten diren kontratu-prozeduren kudeaketan eraginkortasuna handitzeko ezagutzak eskuratzeko.
- Prozesuaren faseei buruzko informazio xehatua ematea, hasi gastuen arauditik eta hautagarritasunetik eta proiektuaren auditoria eta itxieraraino.

## **Metodologia**

Edukiak honako alderdi hauek konbinatuz landuko dira:

- Irakasleek ezagutzak azalduta, eta bertaratutakoek jarduera dinamiko eta parte-hartzaileen bidez taldean lan eginda.
- Material teoriko osagarrien ekarpena eta erreferentziak.

## **Norentzako da**

Kontratuen kudeaketan lanbide-gaitasunak zabaldu nahi dituzten GGKEetako eta koordinakundeari elkartutako koordinakunde autonomikoetako zuzendari eta teknikariei eta EBk finantzaturako garapenerako lankidetzaprogrametan nahasitako eta/edo interesaturako pertsona eta erakundeak.



## Iraila 27.

**10:00-10:30 Izen-emateak eta ongietorria. Ikastaroaren aurkezpena, helburuak eta xedeak**

**10:30-12:00**

**a) EBko diru-laguntzen kontratuak eta eranskinak**

- Zehaztapen eta baldintzen balorazioa kontratuaren sinaduraren eta negoziazioaren aurretik. Baldintza berezien eta eranskinen edukia

**b) Finantza-araudia eta gastuen hautagarritasuna**

- Gastu hautagarriak, gastu ez-hautagarriak, BEZ eta zergak. Elkarrekin finantzatzea, gauzako ekarpena, kontabilitate-sistemak, hirugarrenentzako finantza-laguntza, proiektuak sortutako diru-laguntzak, zeharkako kostuak

**12:20-14:30 Eginkizunak eta erantzukizunak**

- Proiektuko alde desberdinena: eskatzailea (nagusia), baterako eskatzailea, erakunde afiliatuak, elkartuak eta kontratistak, eta hirugarrenentzako finantza-laguntza

**16:00- 17:30 EBko komunikazioa eta ikuspena**

- EBko ikuspen- eta komunikazio-baldintzak betetzea

**17:30-18:30 Kontratu-aldaketak eta zuzenketak**

- Aldebakarreko aldaketak, kontratu-zuzenketak. Ezinezko aldaketak

## Iraila 28.

**10:00-12:00 Eskuratzeak**

- Kontratu-motak: lan-kontratua, zerbitzu-kontratua eta hornidura-kontratua
- Eskuratzeen mugak eta prozedurak
- Nazionalitate- eta jatorri-arauak

**12:20-14:30 Txosten eta ordainketen aurkezpena**

- Noiz aurkeztu txostenak. Bitarteko eta amaierako txosten deskribatzaileak eta finantzarioak

**16:00- 17:00 Proiektuaren auditoria eta itxiera / Diru-laguntza**

- Kanpo-auditoria baterako prestatzea. Ex-ante / ex-post auditoriak. Ondasunen transferentzia

**17:00- 18:00 Justifikazio-dokumentazioa**

- Eskatzen diren justifikazio-dokumentuak. Artxibatzea

**18:00- 18:30 Ikaskuntza nagusiak eta ebaluazioa**

**JARDUERA PRAKTIKOAK:** Ikastaroan zehar, hainbat ariketa eta kasu praktiko planteatuko zaizkie parte-hartzaileei, prestakuntzan zehar azaldutako prozesu eta ekintzetan parte garrantzitsu bat garatu ahal izateko.



## Iraupena

Irailaren 27 eta 28an. 16 irakastordu.

## Izen-ematea

### Irekita dago izena emateko epea: Abuztuaren 31tik irailaren 21era

Koordinakundearen web-orriko prestakuntza-atalean eskura dagoen aurreinskripzio-inprimakirako esteka. Bete, mesedez, inprimakian eskatzen diren datuak.

HEMENDIK ERE SAR ZAITEZKE

## Prezioa

**35€ Euskadiko Koordinakundeko GGKEko, Estatuko Koordinakundeko GGKEetako eta beste Koordinakunde Autonomiko batzuetako pertsonentzat.**

**60€ beste erakunde batzuetako pertsonentzat.**

- Tarifa murriztua aplikatuko da enplegu-eskaerako egoeran dauden pertsonentzat, eta erakunde kideentzako finkatutako prezioak hartuko dira kontuan.

## Plazak eta matrikulazioa

**45 pertsona.** Aurreinskripzio-epea amaitzen denean jakinaraziko zaie hautatuei nola egin behar den ikastarorako matrikula formalizatzeko ordainketa.

## Informazioa

Piedad Martín

Prestakuntza-arduraduna

Garapenerako GKEen Koordinakunde

formacion@coordinadoraongd.org

91 523 87 15

## Ezerezteak

Ikastaroak plaza-kopuru mugatua duenez, eskaera egin ondoren prestakuntza egin ezin baduzu ezustekoren batengatik, mesedez, jakinarazi Koordinakundeari gutxienez hiru egun lehenago, plaza beste pertsona interesatu bati esleitzeko.

## Ziurtapena

Aurrez aurreko bi saioetan izan direnei emango zaie egiaztageria.

## Prestakuntza noren esku

**Arturo Sanabria.** 17 urtetik gorako lan-ibilbidea, Europako lankidetzaren esparruari lotuta DEVCO eta ECHOko Zuzendaritza Nagusien bidez; enpresa-lankidetzaren arloko laguntza teknikoko funtsak nahiz hirugarren sektoreko aldeaniztuneko erakundeen diru-laguntzak identifikatzen eta kudeatzen.

**Inés Royo Aspa.** Oxfam Intermoneko Funding Coordinator- EU Donor Lead. 14 urteko esperientzia du garapenerako nazioarteko lankidetzaren esparruan. Bi azkenekoak EuropeAid-ek finantzaturako proiektu-zorrorako foku-puntu gisa (DEVCOren jarraipena, finantzaketa-deialdiak, -tresnak eta -modalitateak). AECID-en proiektu- eta programa-arduraduna izan zen Egipton. Proiektu-teknikari gisa lan egin du beste hainbat herrialdetan, esaterako, Sirian eta Marokon.

## Ikastaroa egiteko lekua

Bizkaiko Foru Aldudiko OndareGela

María Díaz de Haro, 11.

Bilbo

